

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren Zuzendaritza-Batzordea

Bilera-akta

Eguna: 2018-05-07

Hasiera-ordua: 16:30

Bukaera-ordua: 17:45

Bertaratuak

Batzordeburua:

Bingen Zupiria Gorostidi jn., Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburua

Batzordekideak:

- Miren Dobaran Urrutia and., Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- Estibaliz Alkorta Barragan, and., Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria
- Joseba Lozano Santos jn., Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria
- Jokin Azkue Arrastoa jn., HABEren zuzendari nagusia eta Zuzendaritza Batzordearen idazkaria
- Garbiñe Doval García and., HAEE-IVAPEko Euskara zuzendariordea
- Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbígano jn., Arabako Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuaren ordezkaria
- Lorea Bilbao Ibarra and., Bizkaiko Euskara eta Kultura Departamentuko foru diputatua
- Miren Garbiñe Mendizabal Mendizabal and., Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusia
- Andres Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindiaren ordezkaria
- Lurdes Isart Badiola and., HABEko Didaktika zerbitzuko ordezkaria
- Joseba Urriz Goikoetxea jn., Araba eta Bizkaiko udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria
- Arantxa Ezeiza Trojaola and., Gipuzkoako udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria

Bertaratu ezina adierazi dutenak

-Aitor Aldasoro Iturbe, Eudelen ordezkaria

Aztergaiak:

- 1.- Batzordekide aldaketaren berri ematea
- 2.- 2016/11/21eko bileraren akta onartzea
- 3.- HABEren Batzorde Akademikoko kideen aldaketak onartzea
- 4.- HABEren 2017ko memoria
- 5.- HABEren Lege-garapena
- 6.- Erakunde arteko harremanak egituratzeko hitzarmenen berri ematea
- 7.- HABEren 2018rako egitasmo berriak

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

8.- HABEren 2018rako ohiko jardunbidea

9.- Galde-erreguak

Bilerari hasiera emateko, HABEren zuzendari nagusiak proposatu du gai-zerrendaren bigarren puntutik hasita, kide berriak izendatuta baitaude Zuzendari Batzordean.

2.- BATZORDEKIDEEN ALDAKETAREN BERRI EMATEA

Jarraian, zuzendari nagusiak berak, Batzordearen kide berriak aurkeztu ditu, betetzen duten karguaren ondoriozkoengatik hasita:

- Bingen Zupiria Gorostidi jn., Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburua, Batzordearen presidente gisa.
- Miren Dobaran Urrutia and., Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Batzordearen presidenteorde gisa.
- Jokin Azkue Arrastoa bera, Zuzendaritza Batzordearen idazkari gisa, HABEren zuzendari nagusia den aldetik.

Ondoren, egon diren beste bi izendapen berriak eman ditu ezagutzera:

- Estibaliz Alkorta Barragan and., Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailaren ordezkari gisa.
- Garbiñe Doval García and., HAAE-IVAPeko Euskara zuzendariordea, erakunde horren ordezkari gisa, eta, azkenik,
- Miren Garbiñe Mendizabal Mendizabal and., Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

1.- 2016/11/21EKO BILERAREN AKTA ONARTZEA

Bidalitako aktaren gainean jaso diren aldaketa-proposamenak azaldu ditu Jokin Azkuek, Lorea Bilbao andereak proposatutakoak hain zuzen:

- Aktaren 1. puntuan izendapen berrien zehaztapena, dagoeneko zehaztuta daudenak.
- Aktaren 3. puntuaren 5. paragrafoan egindako akatsaren zuzenketa: "herritar guztiei" esaten denean "guztiei" hitzari "i" falta zaiolako.

Aipatutako zuzenketak eginda, onartuta gelditu da akta.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

3.- HABEREN BATZORDE AKADEMIKOKO KIDEEN ALDAKETAK ONARTZEA

Ondoren, Jokin Azkuek azaltzen die batzordekideei HABEren Zuzendaritza Batzordeari dagokiola HABEren Batzorde Akademikoaren kideen izendapena onartzea. Hori horrela, proposamen berriak eman ditu ezagutzera:

- Gipuzkoako euskaltegi pribatuen ordezkari-taldea: orain arte Gipuzkoako euskaltegi pribatuen ordezkari zenaren ordezkari ordez, Eli Azpiroz Atxukaroren ordezkari ordez, hain zuzen, Karmele Loinaz Izagirre proposatu dute.
- Gipuzkoako udal euskaltegien ordezkari-taldea: orain arte Gipuzkoako udal euskaltegien ordezkari zenaren ordezkari ordez (Maite Zaldua Legorburu), Asier Treku Lertxundi proposatu dute.
- HABEren Hizkuntza Didaktika zerbitzuaren ordezkari-taldea: HABEren zuzendari nagusiak azaldu du iaz arte ordezkari zen Joanba Bergara Pascalek erretiroa hartu duela, eta, ondorioz, kide berriaren izendapena proposatu du, Iñaki Murua Alzola, hain zuzen ere.

Izendapen-proposamen guztiak onartu dira.

4.- HABEREN 2017KO MEMORIA

Sarrera modura Batzordearen presidente den Bingen Zupiriak adierazi du pasa den urtean ez zela bilerarik egin, baina aurrera jarraitu aurretik, Batzorde honi dagozkion eskumenak baliatu ahal izateko, urtean zehar gauzatu beharrekoak diren bilerak antolatzeke konpromisoa azaldu die batzordekideei.

Ondoren Jokin Azkuek 2017ko memoriari buruz honakoa argitu du: memoria horren lehen puntua euskaltegien finantziarioa izan beharko lukeela, baina finantziario horri buruzko informazioa 2018. urteko informazioarekin batera ekarriko duela, urte bakoitzeko informazioa osotasunez eman ahal izateko, eta dagokion bilakaera ikusteko. Izan ere, orain emanez gero, zati bat bakarrik eman ahal izango luke, bai urtea, bai ikasturtea bukatu gabe daudelako. Beraz, jarraian Hizkuntzaren Didaktika **zerbitzuaren bitartez** gauzatzen den jarduerari buruzko informazioa azaldu du:

Sei ataletan nabarmendu du 2017. urteko jarduerari dagokion informazio aipagarria, batzordekide bakoitzari emandako txostenean zehaztuta dagoela ohartaraziz:

- 1- **Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren diseinua eta egikaritzea**, erantsiz esparru honetan duela bere zutina HABEren Hizkuntza Didaktika zerbitzuak, bai material kurrikularren horniketa gauzatzeko, baita irakasleei zuzendutako prestakuntza-arduraren jarduerari bideratzeko. Azpimarratu du nabaria izan dela arlo honetan garatu den aholkularitza-zerbitzua euskaltegiek beren Curriculum Proiektua eguneratzeari begira, eta beharren arabera gauzatu diren ikastaro laburrak eta mintegiak.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

- 2- **Materialgintzaren arloan** gauzatutako jarduera, eta horren baitan honakoak azpimarratu ditu: B1 mailako langaiei buruzko proiektua, dagoeneko garatuta dagoena (Bagoaz proiektua), jardun biko ikastereduaren oinarriari buruzkoa, eta Ikasbil eta Irakasbilen argitaratzeko sekuentzien bilketa eta katalogazioa.
- 3- **Materialgintza-arloko adierazleak**, batzordekideen ezagutzarako.
- 4- **Argitalpenak**, batez ere, Ikasbilen ikasleei zuzendutakoa, HABE aldizkaria, eta irakasleei zuzendutako e-Hizpide aldizkariaren argitaratu diren bi aleak, bat liburu formatuan, Itzulpen Sailaren barruan, euskalduntzeari begira interesgarria izan daitekeena eta euskarara itzuli dena; eta bestea ere, oso interesgarria dena euskalduntze prozesuaren aldetik, bideo formatuan, hamabi bideo-alez osaturikoa, irakasleen formaziorako, bideo-sailaren baitan.
- 5- **Ikas-irakas prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa**. Jokin Azkuek azaldu du esparru hau gero eta gehiago ari dela zabaltzen egiaztapenaren ikuspegitik. Zehaztu du, alde batetik, euskaltegietan garatu den prozesuaren bidez, A1 mailatik B1 mailara bitarteko egiaztatze-prozesuaren jarraipena egin dela, eta, bestetik, ikasleei zuzendutako B2 mailatik C2 mailara bitarteko egiaztatze-proben deialdiak burutu dituela HABEK, bertan aurkeztutako azterketarien kopurua 13.000 bat ingurukoa izanik. Prozesu hori dagoeneko nahiko egonkortua dagoela adierazi du.

Eta gaineratu du euskaltegietako ikasleei zuzendutako egiaztatze-deialdiez aparte, deialdi irekiak antolatu zituela HABEK 2017. urtean, B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko. Adierazitako datuen arabera, udazkenean gauzatu zen prozesuan beste 6.000 bat inguru azterketarik hartu zuen parte deialdi irekian; horietatik heren bat gutxi gorabehera euskaltegietako ikasleak dira.

Bestalde, kualitatiboki garrantzia duen beste egiaztatze-deialdiaren berri eman du, hain zuzen ere, Euskal Etxeetan euskara ikasten ari diren ikasleei zuzendutako deialdiarena.

Azkenik, eman du aditzera A1, A2 eta B1 mailen egiaztapenari begira, jarraipen-sistema bat eratu dela, ikasleei egindako ebaluazioa zenbait parametroren arabera aztertu ahal izateko, A1 eta A2 mailako ebaluazio-jardueren eta B1 mailako amaierako proben langin baten azterketa egiteaz gain.

- 6- **Teknologia berriak baliatuz, euskararen ikas-irakas prozesua etengabe hobetzea**. Jokin Azkuek dio hobekuntza hori HABEK Moodle sistemaren bitartez sustatzen duela, IKASTEN plataformaren bitartez, hain zuzen. Autoikaskuntzarako plataforma bat izanik, prestatuta dago, bai ikasleek, baita irakasleek ere, bertatik hainbat langai didaktiko eskuratu ahal izateko.

Bestalde, erantsi du euskaltegietako ikasleen eta irakasleen erabileraz gain, hainbat erakundek erabiltzen dutela aipatu plataformaren bitartez HABEK bideratzen duen eskaintza; besteak beste, ETXEPARE Euskal Institutuak, Hizkuntza Eskola Ofizialek, Euskal Etxeek, unibertsitateek eta abar.

Eskainitako baliabideen erabileraren hedapena erakusteko, batzordekideei entregatutako txostenean jaso diren adierazleen emaitzetara bildu da. Besteak beste, 2017. urtean 684.565 bisita egon direla Ikasbilen, eta 3.700.000 orrialde deskargatu direla azpimarratu du zuzendariak.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Gai-zerrendaren puntu honi bukaera emateko, zerrendatu diren jardueretan gehiago sakondu nahi duten batzordekideek aipatu txostenean informazio osagarria dutela eskuragarri gaineratzen du. Nolanahi ere, informazio gehigarria osatzea eskaintzen du batzordekideek egokitzen jotako ataletan.

5.- HABEREN LEGE GARAPENA

Entregatu den memoriaren atal honetan, HABEren 2017. urteko jarduera nolabait arautu edo ahalbideratu dituzten ebazpenak eta arauak jaso nahi izan direla dio Jokin Azkuek. Lege-garapen gisa, uztailaren 4ko 187/2017 Dekretua azpimarratu du, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko onartu zena. Beste guztiak HABEk bideratutako dirulaguntza-deialdiak, gaitasun-mailen egiaztatze-deialdiak, kontratuak, beka-deialdiak, eta abar, dira.

6.- ERAKUNDE ARTEKO HARREMANAK EGITURATZEKO HITZARMENAK

Atal honetan Jokin Azkuek jakitera eman ditu HABEk Administrazioaren beste organo edota erakundeekin sinatuta dituen hitzarmenak, elkarren arteko harremanak egituratzeko. Orain arte aipatu den memorian zehaztuta daude erakundeak eta hitzarmenak; honako hauek dira:

- Hezkuntza sailarekin, irakasleak euskalduntzekoa.
- LANBIDEREkin, langabezian daudenei zuzendutakoa.
- IVAPEkin, kuantitatiboki zabalena dena, herri langileak euskalduntzekoa.
- Segurtasun sailarekin sinatutako bi hitzarmen: bata, polizia-etxeetan dauden ertzainak euskalduntzekoa, era soltean euskaltegia bideratuak; eta bestea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian prestatzen diren promozio berrietako ertzainak euskalduntzekoa, taldeetan antolatuta.
- Lan eta Justizia sailarekin, Justizia esparruko langileak euskalduntzeko sinatutakoa.
- Osakidetzarekin, erakunde horretan euskara ikasteko kreditua agortu eta lanpostuaren mailara iristeko gutxi behar duten langileak euskalduntzeko adostutakoa. IVAPen ordezkari den Garbiñe Dovalek galdetu du langile hauei zuzendutako ikastaroak lan-orduz kanpo ematen diren edo lan-ordutan. Ez dakiela erantzun dio HABEren zuzendariak, baina erantzungo diola zehaztu du.
- ETXEPARE Euskal Institutuarekin, zera adosteko sinatu zena: hemendik aurrera Etxepare Institutuak finantzatzeko dituela HABEk finantzatzen zituen Euskal Etxeetako euskalduntze-ikastaroak eta bertako irakasleak gaitzeko ikastaroak. Eta, azkenekoz,
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutakoa, "Euskara Eskura" txartelaren bidezko diru-laguntzaren kudeaketa ahalbideratzeko. Kasu horretan, ikasturte baten prestatutako gaitasun-maila egiaztatzea lortu duten ikasleek hurrengo ikasturtean dohainik matrikulatzeko ematen zaien diru-laguntza ahalbideratzen da, txartel baten bidez, hain zuzen ere.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

7.- HABEREN 2018RAKO EGITASMO BERRIAK

Atal honetan jasotzen direnak 2018an garatuko diren proiektuak izanik, aurtengo proiektu puntualak direnak aipatu ditu Jokin Azkuek, datozen urteotan errepikatuko ez direnak, alegia. Horien artean honako hauek aipatu ditu:

7.1. Euskaltegiaren Curriculum Proiektua (ECP). Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum berria ezartzeko onartu zen 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren arabera, bi urteko epea zuten euskaltegiek bakoitzak berea eguneratzeko eta, Jokin Azkuek adierazi du lan sendoa egin dutela esparru horretan euskaltegiek. Jarraitu du esanez, HABEK irizpide batzuk onartu zituela, aurkeztuko ziren ECPak irizpide horien arabera aztertuak ahal izateko HABEn, eta orain, proiektu berriak aztertu ondoren, HABEK euskaltegi bakoitzari bere ECPari dagokion txostena bidali diola, kasuan kasuko ekarpenak edo hutsuneak betetzeko. Halaber, euskaltegien eskariz, egokitzapen horiek gauzatzeko epea irailaren amaiera arte luzatu da. Gaineratu du kexak ere jaso dituela HABEK, beranduegi ibiltzearen irizpideak ematerakoan; izan ere, aipatu Agindua argitu eta, bi urteren bueltan onartu zituen HABEK irizpideok. Hala ere, lan aipagarria egin dutela adierazi du HABEren zuzendari nagusiak.

7.2. B1 mailako langaien argitalpena. Jokin Azkuek dio 250 orduko ikas-prozesua lantzeko diren langai hauek, berez, garatuta eta argitaratuta zeudela 2017ko abenduan, baina azaldu du EMAKUNDEren iritziz, generoaren aldeko arazo bat sortu zela langai horien testu baten inguruan; alegia, EMAKUNDEren iritziz, testua desegokia zen generoaren ikuspegitik. Beraz, HABEK onartu egin zuen EMAKUNDEren proposamena, eta testua aldatu ondoren, langaiak argitaratuta daude berriro. Materiala oso kalitate onekoa dela azpimarratu du.

7.3. B1 mailarako BAGOAZ ikastaroaren garapena, jardun biko ikas ereduaren oinarrien garapen gisa. Arlo honetan 3 ikastunitate prestatu direla azaltzen du, ereduak izan litezkeenak jardun biko ikas-prozesuan. Planteamendua hiru urteren bueltan 270 ordu lantzeko osagaiak prestatzea dela adierazten du (2017an hasi eta 2019an bukatu), IKASTEN plataforman jarri era digitalean, eta aurreikusten den ordu-banaketa honako hau dela: 150 ordu gelan ikasten jarduteko eta 120 ordu ikasleak bere kasa jarduteko.

7.4. HABEren Prestakuntza Plana, prestakuntzaren arloan gai nagusi da. HABEK dituen eginkizun garrantzizkoenen artean helduen euskalduntzean dihardutenen eta bereziki euskaltegi-tako irakasleen prestakuntza bideratzea da. Jokinek azaldu du berari dagokiola EAEko Administrazio Orokorraren erakunde autonomo gisa, bere pertsonalaren prestakuntza-plana onartzea, otsailaren 19ko 30/2008 Dekretuak ezarritakoaren arabera. Beraz, asmoa litzateke helburu biak dituen prestakuntza-plana bideratzea, planaren eremua izanik, alde batetik, euskalduntze arloan diharduten HABEko langileena, eta, bestetik, euskaltegi-tako euskalduntze-lanetan dabilzan langileena eta bestelako langileena ere. Proiektu-egitasmoaren jakintza-esparru gisa honako hauek zerrendatzen ditu: pedagogia, euskal filologia, soziolinguistika, psikolinguistika, kudeaketa akademikoa eta IKTak.

Prestakuntza arloko beste atal gisa azaldu du HABEK, dagokion deialdi publikoaren bitartez, abian jarri dituen bi beka, dagoeneko esleituta daudenak, bi esparru desberdin lantzeko hizkuntzaren gaitasun-mailen egiaztapenaren eremuan: alde batetik, urrutiko egiaztatze-sistema edo telematikoa; eta, bestetik, egiaztatze-sistema asimetrikoa.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Azkenik, aipatu ditu, prestakuntza arloan, unibertsitateekin sinatuta dauden hitarmenen babesean, UPV/EHUK eleaniztasuna eta hezkuntzaren inguruan antolatutako masterraren testuinguruan HABEn gauzatzen diren praktikaldi gidatuak.

7.5. Oinarrizko adierazle-sistema, euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan bideratzen den euskalduntze-prozesua ebaluatzeko. Abian jarri den sistema hau euskaltegiekin osatutako Bitariko Batzordean aurkeztu denean, euskaltegiek planteatu dituzten galderak azaldu ditu Jokin Azkuek, batez ere, zein izango den ebaluazio honen helburua, eta eman zaien erantzuna, alegia, asmoa ez dela euskaltegien finantzaziorako erabiltzea, baizik eta euskaltegien hobekuntza-ildoak jorratzea. Izan ere, euskaltegi bakoitzak urtero bere plana egin behar duela, eta hortaz, ebaluazioak planaren diagnosa egiteko eta egoerari dagozkion neurriak hartzeko balioko lukeela, hain zuzen ere: euskaltegi bakoitzak jakiteko non dagoen eta hurrengo urteetarako norabidea finkatzeko, jakinda nola dagoen beste euskaltegiekiko.

Zehazki hiru motatako adierazleak finkatu dira; ikasleek ikasturtearen hasieran duten abiapuntu egoerari dagozkionak, prozesuarekin lotutakoak, eta azkenik, emaitzei bildutakoak, guztiak batzordekideei helarazi zaien memorian deskribatuta daudenak, hain zuzen.

7.6. DBHko 4.mailako ikasleen lagin bati (1000 ikasleko lagina) B2 mailako azterketa egitea, mintzamen-proba, hain zuzen, ISEI-IVEIren eskariz. Maiatzaren azkeneko astean gauzatuko dela proba hori zehazten du, HABEko tutoreen partaidetzarekin eta euskaltegiatako aztertzaileenarekin.

Proba horrek duen helburuari buruz Garbiñe Dovalek egin duen galderari erantzunez, Jokin Azkuek dio hezkuntza-prozesuan ikas eredu desberdinetako ikasleek lortzen duten gaitasun-maila ezagutzea dela probaren xedea. Dena den, zehazten du emaitza ez dela publiko egingo, baizik eta ISEIri emango zaiola.

Batzordearen Presidenteak zehazten du ISEI-IVEIk gauzatu nahi duen proba horren helburu nagusia hezkuntza-sistemaren diagnosi bat egitea dela eta diagnosi horren aurrean hartu behar diren neurriak

7.7. EGAREN kudeaketa

Hizkuntza-gaitasunaren egiaztatze-eremuko hausnarketa abiatu zela, 2016. urtean Jaurlaritzan, adierazi du Jokin Azkuek, hausnarketa horren baitan nabarmendu diren bi bloke nagusi azalduz:

- 1- Herri langileei dagokiena, bere osotasunean IVAPena, eta
- 2- Herritarrena, HABEri atxiki zaiona.

Ildo horretatik, EGA agiriaren kudeaketa, gaur egun Hezkuntza sailari atxikita egon arren, HABEri egoztea erabaki dela azaldu du. Herritarrei zuzendutako egiaztatze-deialdia den aldetik, dagoeneko Hezkuntza eta HABEko ordezkarien artean abian jarri den prozesuan aurreikusten dela 2020. urtean HABEk kudeatuko duela, bere osotasunean, EGARI dagokion egiaztatze-deialdia, eta horrek suposatuko duela beste 11.000ren bueltako azterketari-kopurua gehitzea HABEk dagoeneko kudeatzen duen kopuruari.

Hausnarketa horren helburua, besteak beste, bikoizketak ekiditea dela dio Jokin Azkuek.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

7.8 2018ko egiaztatze-deialdiak. Jokinek azaldu du urte hasieran argitaratu zirela aurtengo egiaztatze-deialdiak, B1 mailaraino euskaltegian egindako ebaluazioaren bitartez egiaztatzeko, eta B2, C1 eta C2 mailarainoko egiaztapena HABEk antolatutako azterketen bitartez.

Euskal Etxeetako ikasleei zuzendutako egiaztatze-deialdiari dagokionez, deialdi hori Madrilen eta Bartzelonan antolatu dela, hiri horietako euskaltegietan biltzen delako ikasle kopuru handiena, eta bertako ikasleak aurkezteaz gain, beste hiri batzuetako ikasleak ere biltzen direla Madrilen eta Bartzelonan gauzatzen den deialdira.

7.9 Legeriaren eguneratzea, 2016ko azaroaren 23ko Aginduaren egokitzapena, hain zuzen ere, honako bi aldaketa hauek burutzeko:

- egiaztatzeari buruzko ziurtagirien eragin-datak ugarituz, bi izatetik lau izatera pasatzeko urtean zehar. Izan ere, indarrean dagoen Agindu horren arabera, ziurtagirion eragin datak bi izan daitezke, uzailekoa edota urrikoa. Izapidetutako egokitzapenaren bitartez, eragin-datak lau izan litezke: urtarrilekoa, apirilekoa, uzailekoa edota urrikoa. Hala, maila gaudituz duen ikasleak ez du horrenbeste itxaron beharko ziurtagiria eskuratu ahal izateko.

- Azterketa Batzordean euskaltegi pribatuen ordezkariak lau kidez osaturik dago, sare bakoitzeko bana. Baina berez, bost sare daudenez, Aginduaren aldaketarekin ahalbideratzen dela bosgarren sareak ere bere ordezkaria izatea.

Zuzendaritza Batzorde honek onartu egin du 2016ko azaroaren 23ko Aginduaren egokitzapen-proposamena bere izapidearekin jarraitu ahal izateko.

Azkenik, aipatu du, legeriaren eguneraketarekin berariaz lotuta ez dagoen arren, berdintasunerako teknikari lanpostu bat sortu dela HABEn. Azaldu du orain arte HABEn osatu zen genero berdintasunaren aldeko batzorde baten bitartez landu izan dutela generoaren aldeko gaiak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeriak halako lanpostu baten ezinbesteko aurreikuspena egiten badu ere. Nolanahi ere, Legebiltzarrean eta beste zenbait eremutatik eskatu zaio HABEri aipatu legeak ezarrita duena betetzeko; beraz, errekerimendu horri erantzunez, lanpostua sortu da eta dagoeneko beteta dago.

8.- HABEREN 2018RAKO OHIKO JARDUNALDIA

8.1. Hizkuntza Didaktikaren zerbitzuaren ohiko jarduna

Jarraian, Hizkuntza Didaktikaren zerbitzuaren ohiko jarduerari dagokionez, bilera honetarako prestatu den txostenera bildu ditu Jokin Azkuek batzordekideak, ohikoak diren jardueren jarraipena egin ahal izateko ondoren zehaztutako arloetan, ez duelako ezer berririk eranstean, eguneratze-datuak izan ezik:

- Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren diseinua eta egikaritza.
- Materialgintza esparruko proiektuak eta homologazioa.
- Ikas-irakas prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa.
- Teknologia berriez baliatuz, etengabeko hobekuntzaren sustapena euskararen irakaskuntzan.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

- Irakasleen prestakuntza eta formaziorako praktikak.
- Argitalpenak.

8.2 2017ko aurrekontuen likidazioa eta 2018ko aurrekontuak

Txostenean bildutako agirien artean, HABEren aurrekontuei dagokienez, Jokin Azkuek nabarmendu ditu 2017koak eta 2018ak, eta 2017koen informazioari dagokionez, bi agiritan, bata diru-sarrerei dagokiena, eta beste, gastuei dagokiena, horietako bakoitza lau ataletan egituratuta dagoelarik:

- Urte hasierako aurrekontuetako informazioa.
- Urtean zehar gauzatu ziren aldaketen informazioa.
- Gauzatutako aurrekontuen informazioa.
- Aurrekontuetako atal bakoitzeko informazioa 2018ko ekitaldiari begira, alderatu ahal izateko.

Bere esanetan, gastuen artean nabarmendu daitezkeen datuak ondoren zehaztutakoak dira:

- 2017ko I. kapituluan, pertsonalaren soldatei buruzko igoera, herri langileen 2012. urteko aparteko ordainsariaren erregularizazioari dagokion igoera dena.
- 2018ko II. kapituluan, 2017ko aurrekontuekiko dagoen jaitsiera, 2017an B1 mailako langai didaktikoen sormenari eta argitalpenari dagozkien gastuetan gauzatu dena.
- 2018ko IV. kapituluak ere aldaketa hauek jaso ditu:
 - o Udal euskaltegiei zuzendutako diru-laguntzei dagokien diru-kopuruaren igoera (11.365.000€tatik 11.705.000€tara)
 - o Euskaltegi pribatuei eta autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako diru-laguntzen diru-kopuruaren igoera (18.180.000€tatik 19.962.000€tara)
 - o Euskal Etxeetan emandako ikastaroentzako diru-kopuruaren jaitsiera, 2017-2018 ikasturtea amaitu bitarteko finantzazioa aurreikusi delako; izan ere, sinatutako hitzarmenaren arabera, Etxepare arduratuko da ikasturte berriaren finantzazioaz, eta, ondorioz, 2018ko urritik abendura bitarteko finantzazioa bere aurrekontuetatik gauzatuko da (230.000€tatik 180.000€tara). Hortaz aparte, Etxepare Euskal Institutuari utziko zaizkion giza baliabideei buruzko galderari erantzunez, gai horretan HABEn lanean jardun duen teknikariak aholkularitza emango dio.
 - o Ikasleei zuzendutako diru-laguntzen diru-kopuruaren igoera nabarmena, doakotasunari buruzko aurreikuspenak gauzatzen joan ahal izateko (1.250.000€tatik 1.800.000€tara).

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Diru-sarreraren artean, berriz, honako hauek azpimarratu ditu:

- Euskalduntze-lanak finantzatzeko sinatzen diren hitzarmenen arabera diru-sarrerak, non azpimarragarrienak ondorengo hauek izanik:
 - o IVAPek egiten duen ekarpenaren dimentsioa, kuantitatiboki garrantzitsuena delako hitzarmenpeko diru-sarreraren artean.
 - o Lanbidek aurreikusi duen ekarpenaren igoera, 150.000€tatik 200.000€tara bitartekoa.
- Kultura sailaren ekarpenaren igoera, nabarmenena bere ekarpena izanik, aurtengo aurrekontuetan igoera esanguratsua jaso duelako; alegia, 33.731.642€tatik 35.976.774€tara bitarteko igoera jaso du partida horrek.
- HABEren jardueratik eratorritako diru-sarrera propioen kopurua, 691.932€tara, gaitasun-mailen egiaztatze-jardueratik eratorritakoak.

Lanbideren ekarpenari dagokionez, 2017an gauzatu den diru-kopuruaren jaitsieraren arrazoia azaldu du Jokin Azkuek, adieraziz Lanbiderekin hitzartuta dauden ikastaroak langabezia dauden herritarrei zuzenduta daudela, baina ez langabezia dagoen edozein herritarri, baizik eta zenbait lanpostu lortzeko prestakuntza-ekitaldiren batean parte hartzen ari diren herritarrei. Argitu duenez, horietako zenbait partaidek lana eskuratu bezain pronto prestakuntza-ekitaldiak uzten dituzte, eta horregatik ez dira gauzatu aurreikusitako diru-kopuruak.

Garbiñe Mendizabalek galdetu du aukerarik ote legokeen lanean ari diren langileentzako euskalduntze eta prestakuntza-ekitaldiak antolatzeke. Behar hori sortu da dagoeneko gizarte-zerbitzuen eremuan. Behar horren aurrean, mahai gainean jarri du Jokin Azkuek eremu horretako langileen egoera, alegia, gizarte-zerbitzuen alorrean dabilzan langileen herena herri langileak dira, eta horientzako ez legoke arazorik administrazioen erabilera plangintzen arabera. Beste bi herenak, berriz, kontratatutako enpresetako langileak dira, eta lanpostu horien inguruko hizkuntzaren erabilera-plana egin arren, oztopoa langileen enpresen izaera pribatua izango litzatekeela dio.

Uliazpi Fundazioren kasua eta Kabiarena mahaigaineratu ditu Garbiñe Mendizabalek, esanez, bi kasu horietan beharra sortuta dagoela dagoneko. Erantzun dio Jokin Azkuek agian hitzarmen baten bidez konpondu ahal izango dela behar hori, B1 mailako beharrei aurre egiteko, maila horretan identifikatu baitira orain arte "laguntzaileen" lanpostuen beharrak. Edozein kasutan, arlo horretan ere egiaztatze asimetrikoaren gaia sortzen dela beharren arabera, beraz, gai hori ere kontuan izan beharko dela.

Hitzarmenaren bidea interesgarria litzatekeela dio Garbiñe Mendizabalek, momentu honetan sortu den beharra konpontzeko, eta galdetzen du zenbat denbora beharko litzatekeen egiaztatzeari buruzko gaia argitzeko. Urtebete beharko dela dio Jokin Azkuek.

Pilotu-proba modura hastea ere interesgarria litzatekeela, adierazi du Lorea Bilbaok, bi helburu lor daitezkeelako modu horretara:

- Alde batetik, momentuan sortu den beharra konpondu.
- Bestetik, zerbitzuak planteatu ditzakeen arazoak aurreratu neurri egokiak bilatzeko etorkizunari begira.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Egoeraren azterketa eztabaidatzen jarraitu dute batzordekideek, batez ere, honako alde hauek:

- Sektore pribatuko langileei B1 mailako trebetasunak eskatzen bazaizkie, sektore publikoan ere berdindu behar ez ote den gaitasun-mailaren eskakizuna.
- Sektoreko langileen mugikortasunak arazo bereziak eragingo dituela. Gai honen inguruan Joseba Pérez de Herediak dio, Arabako lurraldeari dagokionez, berak ez duela mugikortasunaren aldeko arazo berezirik ikusten, sektoreko langile-kopuruaren zati handi bat herri langileak direlako. Nolanahi ere, argi ikusten du sektore pribatu eta publikoaren arteko aldeak arazo bihurtuko direla, gaia bideratzeko orduan.
- B1 mailako mintzamen-trebetasuna nahikoa ote den gizarte-zerbitzuak eskaintzen dituzten egoitzetan dauden bezeroei arreta egiteko. Hain zuzen ere, Lorea Bilbaok honako zalantza planteatzen du: euskara menperatu eta euskaraz aritzen diren bezeroei arreta egiteko nahikoa ote den B1 mailako mintzamen-gaitasuna.

Eztabaidari amaiera emanaz, Jokin Azkuek Garbiñe Mendizabalen eskariz hitzarmenaren bidea jorratzea proposatu du, eta bestelako erabakirik hartzeko, gauzatzen ari diren azterketa-lanen emaitzen zain egotea, eta hala onartu da.

8.3 Euskaltegien jardueraren bilakaera

Euskaltegien jardueraren bilakaerari dagokionez, Memorian jasota daudela dio zuzendariak datu nabarmenak, nahiz eta 2017-2018 ikasturteko datuak behin betikoak ez izan; alegia:

- Diru-laguntzen aldetik, nabarmenena 2017-2018 ikasturtean burutu den laguntza-moduluaren igoera, % 6koa, hain zuzen ere.
- Matrikulazioaren aldetik, berriz, euskaltegi publikoen jardueraren jaitsiera eta euskaltegi pribatuetako matrikulazioaren igoera (matrikula-kopurua eta ikasle-kopurua desberdindu omen dira ikasle batek matrikula bat baino gehiago egin dezakeelako ikasturtearen zehar). Aipatu joera hauek, jaitsiera eta igoera txikiak izan arren, azkeneko urteetan ohartu diren joerak direla dio Jokin Azkuek.

Bingen Zupiriak ikasleriaren banaketa-moduari buruz egin dion galderari erantzunez, Jokin Azkuek erantzun du hainbat ikasle bietan aritzen dela, esate baterako, urtean zeharko ikastaroak egiteko, publikoan, eta udako ikastaroetan matrikulatzeko, berriz, pribatuan.

Gaineratu du HABEren zuzendariak matrikulazioaren datuak mailaka ere badaudela antolatuta entregatutako txostenean, eta baita ere ikastaroen trinkotasunaren arabera (astean emandako ordu-kopuruaren arabera), inork gehiago aztertu nahiko balitu ere. Horien artean azpimarratu du maila baxuko ikasleri gehiena euskaltegi pribatuetan dagoela, eta maila altuko ikasle-kopuru handiena, berriz, euskaltegi publikoetan, indartzen ari diren mailak B2 eta C1 izanik.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Trinkotasunaren aldetik, agerian jarri du euskaltegi publikoetan nabaritu den trinkotasunaren beherako joera, eta pribatuetan, berriz, trinkotasun handiagoa mantentzearena. Alde horretatik, ordea, Arantxa Ezeizak adierazi du, alde batetik, sektore pribatuko trinkotasun-neurria mantentzen dela neurri handi baten barnetegiak sektore horretara biltzen direlako, barnetegietan gauzatzen den jarduera trinkotasun handikoa delako; eta bestetik, hiriburuetan ez dagoela euskaltegi publikorik, eta horrek ere trinkotasunaren datuari nabarmen eragiten omen dio. Horri erantsi dio euskaltegi publikoetan hala planteatzen dela ikastaro-demanda; alegia, ikasleak trinkotasunaren bila dagoenean, barnetegira jotzen omen du, eta, bestela, bi eguneko ikastaroak eskatzen omen dira.

8.4. Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020

Gai-zerrendaren azkeneko puntu gisa, Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2018 jaso dela adierazi du HABEren zuzendariak, dokumentu horretan orain arte bileran aipatu diren gai guztiak aurreikusita omen baitaude. Bertan, zehazten du, hartutako konpromiso guztiak azaltzen omen dira, eta aurreikusitako ekintza guztiak ere bai. Beraz, nolabait esateko, dokumentu hau da orain arte azaldu diren gai guztien laburpena.

Bilera bukatu aurretik, presidenteak galdetu du batzordekideek galdera edo eskaerarik duten egiteko eta Garbiñe Mendizabalek erantzun dio berak bileran planteatu den hitzarmenaren aukerarekin lanean jarraitzeko, hitzarmen-ereduren bat eskatu nahi duela nonbaitetik abiatzeko.

Andres Iñigok, bere aldetik, emaitzen arabera egituratutako matrikulazio-datuak helarazterik dagoen galdetu du, eta Jokin Azkuek erantzun, emaitzen araberrako memoria osatzen dela urtero, beraz, memoria hori helaraziko zaiela batzordekideei. Edozelan ere, laburpen gisa azaltzen die matrikulatuta egoten diren ikasleriaren erdia aurkezten dela probetara, eta horietatik, erdiak gaintitzen duela maila, baina ikasturtea amaitu ondorengo Memoria bidaliko zaiela datu zehatzagoekin.

Joseba Pérez de Herediak gaineratzen du adierazleen artean aurreikusita dagoela bat emaitzekin zuzenean lotuta dagoena.

Besterik ez dagoenez, bertaratutakoak agurtu eta, etortzeagatik eskerrak eman ondoren, batzordearen presidenteak bukatutzat eman du bilera goian aipaturiko orduan.